

PRENTSA AGERRALDIKO KOMUNIKATUA

Zortzi hilabete baino gehiagoko itxaronaldiaren eta sufrimenduaren ondoren, gure egoera konponduko zela uste genuenean, Autoglas - Glavistako langileok muturreko egoeran eta desagertzeko zorian gaude.

Laudion ia ehun urte daraman enpresa bat gara, lan-karga baduena eta baita etorkizuna, enpresa-jarduerari berehala berrekiteko aukerak zituena. Baina hala ere, eskrupulurik gabeko jendearen interesengatik nola deskonposatzen den ikusten ari gara.

Sufrimenduz betetako hilabeteak izan dira eta gorabehera emozionalak bizi izan ditugu prozesu honetan, batzuk jada gure osasunarekin eta finantzekin ordaintzen ari gara hau guztia.

Duela bi aste, bazirudien prozesuak amaiera on bat izango zuela guretzat. Aurtengo oporrak eskatzera ere joan ginen enpresara. Baina gauek goizera, Guardian berriro ere eszenan agertu da prozesu osoa zapuzteko.

Glavista erosi nahi duen inbertsorearen arabera, Guardianek azken orduko bira eman du enpresaren bideragarritasunerako beharrezkoak diren lursailak saltzeari uko eginez.

Prozesu honetan, argi-ilun askok ihes egiten digute, baina ziur gaude Guardian dela gure egoeraren lehen eta azken erruduna, duela hiru urte baino gehiago, Parter Capital funts putrearen eskuetan jarri gintuenetik. Azken biraketa berri honek erakusten du Guardianen interes argia, parabrisa dibisioa guztiz desintegratzea besterik ez dela, eta bere fabrikari hainbat hamarkada lanean egon diren 240 familiaz desegitea.

Lursailen salmentagatik edo edozein aitzakiagatik, langileok beti ordaintzen ditugu gure etxeetatik milaka kilometrora dauden administrazio-postuetan hartzen diren erabakien ondorioak.

Hori dela eta, Autoglas - Glavistako langileok inplikaturako alderdiei, Eusko Jaurlaritzari eta erakundeei eskatzen diegu gure egungo egoerari irtenbidea bilatzeko eta gure lantegiaren etorkizuna bermatzeko eseri daitezen exijitzen diegu.

Egoera honek horrela jarraitzen badu, behar diren mobilizazio guztiak hasiko ditugu, eta gure egoera tamalgarria gizarteratzeko eta ezagutarazteko behar diren ateak joko ditugu, Laudioko fabrikako lanpostu guztiak salbatzeko.